

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua gauzatzeko hainbat kostu izango ditugu. Nahiz eta kostu finko batzuk izan hileroko, kostu gehienak oso aldakorak izango dira, bezeroek **kontratatzeko dizkiguten zerbitzuen arabera** izango baitira hain zuzen ere.

Guretzako etekina ateratzea ez da negozioaren xede nagusia, hala ere, kostuak ahalik eta gehien txikitzen saiatuko gara; alde batetik bezero guztiek gure zerbitzua eskuratu ahal izateko; eta beste alde batetik ekintza batean aurreztutakoa beste batean inbertitzeko; eta azkenik, aterako ditugun etekinak handitzeko.

Gure **kostu finkoak** hurrengoak izango dira:

- **Soldatak.** Berdinak izango direnak laurontzat. Soldatak finkoak izango dira urtean zehar, hilean beti berdina kobratuko dugulako, baina hiruilako bakoitzean izango ditugun etekinak banatuko ditugu lauron artean, beti zerbait enpresaren kontu korrontean utziz.
- Kontratatzeko dugun **telefono zenbakiaren faktura.**
- Erosiko ditugun lau **ordenagailu** eta **telefonoak** oso inbertsio handia direnez, epeka ordainduko ditugu, hileroko. Erosiko ditugun ordenagailu zein mugikorrek **berregokitutakoak** izango dira, diru aurrezteko eta jasangarritasuna sustatzeko.
- **Marketin eta publizitate kanpainak** bezero gehiago lortzeko.

Gure **kostu aldakorak** hurrengoak izango dira, hilabetearen arabera kostu batzuk edo besteak izango ditugu, izan ere, **eskaintzaren arabera aldakorak** izango dira.

- Gitarra klaseak
- Itsas-kirolak eta Itsasontzi bidaiak
- Dantza klaseak
- Esperientzia kulinarioak
- Bidaiak

ZER	DESKRIBAPENA	HILEAN	URTEAN
4 Soldata	Hasiera batean, baliteke soldata hain altua ez izatea.	750x4= 3.000€	36.000€
4 Ordenagailu	MacBook Pro 16 Bakoitzak 823€ balio du baina urte batean finantziatuko dugu.	274,6€	823x4= 3.295,12€
4 Mugikor	IPhone 13 Bakoitzak 566€ balio du baina urte batean finantziatuko dugu.	188,67€	566x4= 2.264€
Telefono linea	Linea bakarra kontratatuko dugu eta 4 mugikorretan jarriko dugu. Kontratatu dugun linea datu eta dei agortezinak izango ditu.	17,40€	208,8€
Marketin eta publizitatea	Kartelak, propaganda egiteko materiala, eskuorriak....	30€	360€
GUZTIRA KOSTU FINKOAK		3.510,66€	42.127,92€

Hauek izango lirateke gure kostu finkoak, baina kostu aldakorrek hilabetearen arabekoak izango direnez, ezin ditugu taula batean adierazi.